

## ZUBIETAKO ERRAUSTE PLANTAREN PROIEKTUAREN INGURUKO MOZIOA

Azken 5 urte hauetan Debagoiena eredu bilakatu da hondakinen kudeaketari dagokionean, sistema ezberdinen bitartez %80ko gaikako bilketa mailara iritsiz. Beste mankomunitate batzuk ere badirudi norabide egokian pausoa ematera doazela eta borondate politikoa izanez gero urte gutxitan Gipuzkoan pauso handiak eman genitzake gaikako bilketa mailaren hobekuntzan.

Jakina den moduan Europako zuzentzauek argi eta garbi adierazten dute hondakinen kudeaketan jarraitu beharreko hierarkia zein den: hondakinen gaikako bilketa bultzatu eta birziklapena bilatzea. Errausketa bezalako tratamenduei ateak ixten joatea alegia. Gipuzkoak badirudi kontrako norabidea hartuko duela.

Ordezkarri politiko batzuek tematuta jarraitzen dute Zubietan errauskailu bat egitearen proiektua martxan jartzeko orduan. Hondakinen arazoari, oinarritik heldu beharrean, hau da, herritarrei etxeko sukaldeetatik ahalegin bat egin dezatela eskatu beharrean, zuzenean azpiegitura erraldoi eta kutsakor bat egitera doaz, jakinaren gainean epe labur ertainean ez dela nahiko zabor izango eta errauste planta martxan mantentzeko zaborra inportatu beharko dela.

Hondakinen kudeaketa bezalako oinarrizko zerbitzu bat erabat pribatizatu eta negozio irizpideak interes publikoaren gaintik jarriko dira. Zubietako proiektuak banketxe, eraikuntza eta zerbitzuetako enpresa multinazionalen negozio beharrei erantzuten die eta gipuzkoarrok hurrengo urteetarako bidegabe zorpetzera garamatza.

Herrietako ordezkari politiko askok prentsatik jakin dugu hurrengo uztailaren 28an GHKk errauste plantaren proiektua gauzatzeko pleguak onartzeko bilkura egingo duela. Debagoieneko Mankomunitatean uztailaren 12an egin zen Gobernu Juntan salatu genuen GHKren ezkutukeria.

Aipaturikoak kontuan izanik, Oñatiko Udalbatzak honoko hau adierazten du:

1. Oñatiko Udalbatzak arbuiatu egiten du Zubietan edo beste edozein udalerritan erraustegi bat jartzea.
2. Oñatiko Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Gipuzkoako Foru Aldundiari, mankomunitateei eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari Zubietako errauste plantaren proiektua alde batera utzi eta har ditzatela hondakinen kudeaketan hartu beharreko neurriak hondakin gutxiago sortzeko, behar bezala birziklatzeko eta "zero zabor" ekonomia zirkularreko eredurantz aurrera egiteko.
3. Oñatiko Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Aldundiari ahalik eta azkarren jar dezala plan bat martxan oraingo kudeaketa sistemaren zirkulua ixteko behar diren konpostatze plantak, errefusa tratatzeko planta eta inerteen biltegia jartzeko.
4. Oñatiko Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Aldundiari ireki dezala udalerriekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko prozesu bat, tratamendu planten plan hori zehazteko eta gauzatzeko, gardentasuna eta lankidetzeta aintzat hartuta.
5. Oñatiko Udalbatzak Debagoieneko Mankomunitateari eskatzen dio, GHKtik kanpo bere ibilbide propioa egitea hobetsi dezala, hondakinen kudeaketa arduratsu, jasangarri eta osasuntsu baten alde.

Oñatin, 2016ko uztailaren 21ean

